

# Euskal mitologia

Euskal mitologiak gainerako herri eta kulturetan gertatzen den bezala, euskal mitologiaren oinarriak ere, alegiazko kontakizun, elezahar, eta antzinako heroien balizko egintza edo egiazko gertaeren kondairak dira; gehienetan, izadiaren indarra edo gizakia eta jainuen arteko harremana kontatzen dute. Mitoak sailka daitezke kondairaren esanahia edo berez duten mezuaren arabera: Batzuk kosmosa edo lurraz kanpoko gaia dute, eta besteak, berriz, lurtarrak dira.

## EGUZKILORE

Bere izenak eguzkiko lorea esan nahi du. Antzinako espirituak eta ekaitzak uxatzen zituela sinesten zen . Hau da eguzkilorearen pasadizoa:

<<Duela mila urte , gizonak espirituen arriskua zuten. Espirituak uxatzeko gai zen izaki bat egiteko eskatu zioten Ama-lurrari eta honek ilargia eratu zuen; baina ez zen nahikoa, eguzkia eratu zuen , baina ere ez. Orduan, ama lurrak eguzki lorea eratu zuen.>>

## MARI

Euskal mitologian garrantzia handikoa da; Mari naturaren erregina da. Aspaldiko jendearentzat jainkosa bat zen eta Europako mitologiarekin zerikusia zuen. Marik izen ugari dauzka baina zaharrena Mari dela uste da. Hauek dira adibide batzuk: Txindokiko Mari , Anbotoko Mari,Mari Muruko ...

Marik injustiziaren aurka borrokatzen zuen , zintzotasunaren defentzailea zen . Mari pertsona ona zen eta ez zitzaion gezurra, lapurketa ... gustatzen eta besteenganako laguntasuna saritzen zuen. Berarengan sinesten zuen jendea laguntzen zuen eta sinesten ez zutenak zigortzen zituen.

Naturaren indarra irudikatzen du eta, bere botere ahaltzuarekin, naturako indarren arteko oreka mantentzen du. Meta pertsona asko joaten zen berarengana eskatzera mesedez ekaitza uxatzeko.

Haren haitzulo sarreran, meza ospatzen omen zuen herriko apaizak. Horrek adierazten digu, herriak kristautasuna bereganatu ondoren ere, ez zela desagertu Marirenganako sinesmena.

Askotan Mari dotore agertzen zaigu. Durangon, eskuetan urrezko jauregi bat duela. Oñatin, ahari baten gainean. Hodei edo ostadar itxuran ere azaltzen da beste leku batzuetan.

Mari pertsona mitologiko lurterra izan arren, lur azpian edo haitzuloetan bizi zen.

Norbait Mariren bizilekura sartuz gero Marik zigortu egiten du.

Mariren senarra Maju zen eta bere semeak Atarrabi eta Mikelats.

Atarrabi eta Mikelats ongia eta gaizkiaren adierazleak dira.

Mikelats ikasketen etsaia zen, Atarrabi, aldiz, zintzoen ahaidea zen.

## LAMIAK

Jeinu eder onek emakume baten gorputza du erditik gora, eta hankak, aldiz, oiloarenak, ahatearenak, nahiz ahuntzarenak bezalakoak ditu.

Kosta aldeko lamiak, gorputz erditik behera arrain gorputza dute eta honi ere lami deritzo.

Lamien zeregin batzuk hauek ziren:

- Artilea haritu
- Trikuharriak, etxeak eta elizak eraiki
- Arropa garbitu

Eta zeregin gehiago, baina hauek dira garrantzitsuenak.

Asko gustatzen zitzaien bere ilea orraztea urrezko orrazi batekin eta normalean erreken ondoan egiten zuten. Normalean haitzuloetan, erreka putzuetan edo urmaeletan bizi ohi dira. Batzuetan gizakiei eskatzen diete laguntza, adibidez, emagin lanak egiteko, baino askotan mehatxuen bidez egiten ditu eskakizunak. Lamia bat azken arnasa ematen ari denean, pertsona bat bertan egotea eta otoitz bat botatzea eskatzen omen du, bestela ezin baita bakean hil.

Lamiak mutil gazte asko maitemintzen dituzte bere edertasunarekin. Dirudienez, kristautasunaren etorrerak badu zerikusia Lamien bukaerarekin.

Orain lamia gozozaleari buruzko istorio bat kontatuko dugu: Zuberoako baserritxo batean, senar-emazte batzuk bizi dira. Senarra garaiz oheratzen da eta emaztea berandu arte geratzen da haria ardazten. Gauetan andre txiki, iletsu bat etortzen da janariaren eske esanez "txitxi ta papa, papa bustia?" Orduan, egun batean, emazteak senarrari kontatzen dio. Senarra emazteaz mozorrotu da gau hartan. Tximiniatik ezezaguna agertzen zaio. Esaten dio: "txitxi ta papa, papa bustia?" eta senarrak ez entzuna egiten dio. Gaur gogotik ari dela lanean esaten dio lamiak, senarrak baietz esaten dio. Bitartean gizonak zartagina sutan jarri koipez betea eta hura berotzen jartzen du. Zarta gorritu eta koipea irakiten hasi denean, hartu du eta gizonak lamiari botatzen dio. Lamia garrasika ateratzen da tximiniatik. Lamiak oso haserretuta daude, une hartan bertan lamiak gau ilunean desagertu dira .

Orain lamia maiteminduaren istorioa kontatuko dugu. Antton izeneko artzain bat lanean dabil eta han bere bizi osoko neska politena ikusi zuen. Antton maitemindu zen eta lamiari berarekin ezkontzeko eskatu zion. Korrika joan zen bere amari esatera. Bere ama lamia zela konturatu eta berarekin ez ezkontzeko esan zion. Azkenean Antton samintasun lazarri batez jota hil egiten da.

Azken istorioa lamien opariei buruzkoa da. Emakume bat lamien kobazulora sartzen da. Lamiak ikusten ditu eta gero lamiek janari gozoa eta opariak eskaintzen dizkiote+. Azkenean emakumea joaten da baina aldika atzera begiratzen du. Horren ondorioz emakumeak opari guztiak galdu ditu eta inoiz ez da berriz kobazulora bueltatu opariak berreskuratzen.

## GALTZAGORRIAK

Leku askotan aipatzen da: Nafarroako lurraldean, Lesakan eta Leitzan; Bizkai aldean, Gernikan, Orozkon, Ziortzan eta Bedian; Araban, Abezian eta Añesen; Gipuzkoan, Albizturren eta Zarautzen.

Galtza gorritz jantzitako gizontxo txiki-txikiak dira. Jabeak orratzontzi edo kutxatxo batean izaten ditu, eta bere esanetara daude edozein lanetan laguntzeko, lan hori

sinesgaitza izanda ere. Nagusiaren buru inguruan biraka hasten dira zer egitea nahi duen etengabe galdezka. Jabeak agindutako lanak egiten dituzte gauez eta hurrengo goizerako lana eginda egoten da.

## TARTALO

Gipuzkoan, Goierriko bailaran, eta Araban, Domaikan eta Kuartangon aipatzen da. Artzain begi bakarra eta erraldoia da. Herrietako gazteak jaten ditu pizti anker honek. Tartalo oso ezaguna da hainbat motatako mitologietan.

## SORGIN

Euskal herri osoan oso ezaguna da jeinu hau. Sorgina Mari, Etsairen edo Akerbeltzen esanetara dago.

Normalean sorginak emakumezkoak izaten dira. Gaiztakeriak egiten dituzte eta horregatik gaiztakeriak egiten dituzten pertsonen sorgin deritze. Normalean sorginek batzarrak gauean egiten dituzte. Sorginen bilkura horiei akelarreak deritze. Akerbeltzen gidaritzapean burutzen zituzten; bertan, gorputza ukenduz igurtzi, eta belarrekin egindako edabeak edaten dituzte.

Belarren ezaugarriak ederki omen zekizkiten; pozoitsuak, sendabelarrak, aluzinagarriak, eta abarrak. Dantzaldiak egiten dituzte musikaren laguntzarekin.

Sorginek madarikazioak egiten zituzten eta begizkoak botatzen dituzte.

Nola bihurtzen da gizaki bat sorgin? Herri sinismenak dionez, honako arrazoiak izan daitezke:

- Eliza baten inguruan hiru buelta emateagatik
- Sorgin batekin harremanak izateagatik
- Bere jantziak janzteagatik
- Berarengandik kuttun bat jasotzeagatik
- Etsairi muxu bat eman ondoren esaera hau esatean: *"por se, zalpate, fuente fa, funte fi, txiri, biri, ekatsu, ekatsu, amen"*.

Nola dakigu pertsona bat sorgina dela?

- Orinak ez duen pertsona sorgina da.
- Meza-liburua irekita dagoen bitartean elizatik ateratzen ez dena sorgina
- omen da.
- Erpuruaz eskumuturra ukitzen duena sorgina omen da.
- Eskumuturra beste eskuko bi atzamarrez inguratzen duena sorgina da.

## OLENTZERO

Olentzero hainbat lekutan aipatzen da baina batik bat Euskal Herrian aipatzen da.

“Olentzero “ izenaren azken partikulak “aro” garai bat adierazten du . Esan daiteke beraz, lehen, neguko solstizioaren inguruko garaia adierazten zuela, eta gaur egun, berriz, pertsonaia bat. Jende askok esaten du olentzero azken geinua dela.

Kristautasunak bereganatu zuen azken jentil hau Olentzero izan zen. Gipuzkoako leku askotan, eta baita Nafarroan ere, Olentzero deitzen zaio mendian txabola batean bizi den ikazkin xeibre bati. Gabon egunean, etxeakoak oheratutakoan, tximiniatik sartzen da Olentzero Gabon suarekin epeltzera, eta, horregatik, egun horretan, garbi egon behar du tximiniak.

Gabon suak eta enborrak, nahiz Olentzeroren panpina erretzeak zerikusia dute suarekin, eta, San Joanetan bezala, solstizioaren ospakizun paganoa dagoela dirudi sustraian. Kristautasunera egokitutako ospakizuna dugu, jada. Zenbait lekutan kantatzen den abesti batek dio Olentzarok berri ona dakarrela, Jesus jaio dela.

Gaur egun, Olentzero, Euskal Herriko umeei eta nagusiei, Gabonetan opariak ekartzen dizkien pertsonaia da, Noel pertsonaiaren antzekoa. Ikazkin hau, urte osoan, basoan, ikatza egiten egon ondoren, zaku-bete opariz zamatuta ibitzen da Gabon gauean, etxez etxe, poza banatzen. Urtean zehar zintzo portatu denarentzat opariak dakartza eta txarto portatu denarentzat ,berriz,ikatza. Lopez Martinez de Isasti kronikariak aipatzen du, lehen aldiz, ‘onen aroa edo garaia’ esan nahi duela.

Gabonetan erretzen den enbor bati izen berezi bat ematen zaio. Gipuzkoan, Olentzero-enbor.

## SUGAAR

Sugaar suge ar izugarria da; lur azpian bizi da, eta leizeetatik nahiz zuloetatik kanporatzen da.

Batzuek esaten dute Mariren senarra dela. Deabru gaiztotzat hartzen dute leku askotan. Leku batzuetan kontatzen dute tximista bezala zeharkatzen duela zerua, burua eta buztana sutan dituela.

Jeinu honek badu Herensugeren antzekotasunik, baina ematen du Sugaar zaharragoa dela. Sugaarrek sona eta indarra galtzen zuen neurrian Herensugek irabazi egingo zuen.

## IRATXO

Iratxo deritzo euskal mitologiako jeinu bihurri bati gauez ateratzen zena eta Bizkaian oso ezaguna. Gaur egun Iratxo deritzo alegoriazko izaki edo jeinuari.

Ez da gaiztoa, baina bat-batean agertzen da, eta ezusteko izugarriak ematen dizkizu. Norbait bere atzetik hasiz gero, amildegietara, sakanetara eta leku arriskutsuetara eramaten du. Bere ohiko bizilekuak haitzuloak eta osinak dira.

Batzuetan, giza irudia du, baina, beste askotan, abere itxura ere hartzen du; astoarena, ahari beltzarena, zerriarena eta ahotik sua botatzen duen hegaztiarena hartzen du.

## ZEZENGORRI

Zezen gorrik, izenak dioen bezala, zezen gorri baten itxura hartzen du, eta sua dariola agertzen zaigu, maiz. Batzuetan sudur zulotik eta ahotik sugarrak botatzen ditu, eta horrela etsaiak kiskaltzen ditu. Beste batzuetan, haitzuloko iluntasunean distira egiten du, bere adarrak eta buztanak suzkoak baitira. Leize zuloen zaindaria da eta haietan bizi da. Leizeetako edo haitzuloetako jeinuak mirestea eta haienganako sinismena izatea antzinako kontua da Euskal Herrian. Erromatar garaiko hainbat txanpon agertu

dira. Isturitzen, Goikolaun, Santimamiñen eta beste hainbat leizetan, garai haietan ohikoa baitzen leizeetako jeinuei eskaintzak egitea, haien babesa lortzearren.

Bere eremuan sartu edota leizearen bakea eta isiltasuna apurtuz gero, haserretu egiten da, eta gaiztoa bezain beldurgarria izan daiteke. Horregatik, leku batzuetan 'etsai' deitzen diote. Bere haitzuloan harriak botatzen badituzu, Zezengorri haserretuko da eta erasokor agertuko da.

Giza itxura ere hartzen du eta bizilekua duen leizetik herrietara jaisten da. Bera mindu duten edo iraindu duten pertsonak zigortu egiten ditu.

## GIZOTSO

Ohianean bizi den pizti mitologiko bat da. Oihanaren barrenean bizi den erdi otso erdi gizon itxurako munstro basatia da Gizotso. Izugarrizko indarra du.

Gauetz ateratzen da, kate batzuk zintzilika dituela. Luzaiden kontatzen dute oin borobildu bat duela gizotso. Pertsonen eta abere basatien arteko harremanetatik sortuak dira pizti hauek.

Bizkaiko Arratian uste dute gizotsoa otsoen eta pertsonen arteko harreman sexualen ondorio direla. Hemen otsoaren inguruko mitoen indar sexual handia azaltzen zaigu, basatasunaren paradigma eta sinesmen dionisiarrekiko lotura. Sinesmen hau aldi berean Europan dauden otsoekiko sexu-harremanen istorio eta kondaira piloekin lotzen da.

Kondaira batek dio Urkia parajeen, baserritar batzuek Aginao baserriko emakume bat ikusi zutela bere etxerako bidean, eta gizotsoa Bidarbinietatik beregana zihoala. Oihuka ohartarazi zioten "Aginaokoa azkar ibili! Gizotsoa zuregana doa!". Emakumea bere etxera ailegatzen saiatu zen, baina gizotsoak harrapatu eta bularrak erauzi zizkion.

## HERIO

Euskal Herrian oso hedatua dago. Arima batzuen bila dabilen eta heriotza dakarren pertsonaia mitologiko hau.

Euskal mitologia

Pertsona baten heriotzaren arrazoia begizkoa izan daiteke. Gizaki bati biraoa edo begizkoa botatzen diotenean, Heriok bere lana egiten du, eta gizaki hori beste mundura bidaltzen du. Zakur baten zaunka etengabeak Herioren etorreraren berri ematen du, etxe horretan norbait hilko den seinale omen da.

## HERENSUGE

Euskal Herriko txoko askotan da ezaguna pertsonaia mitologiko hau. Suge itxura duen jeinu gaizto eta beldurgarria da.

Elezahar batzuetan, zazpi buru ditu, baina gehienetan bakarra duela kontatzen da. Haitzuloetan bizi da, eta soilik gosea asetzeko ateratzen omen da bizilekutik. Kontakizun askotan, herriko jendeak, aldi behin, pertsona bat eman behar dio Herensugeari, hark jan dezan; bestela herritarrak hil egiten ditu.

## AIDKO

Euskal Herri osoan ezaguna da Aideko baina batik bat Zerainen eta Zegaman, Gipuzkoan; eta baita Lapurdin ere. Pirinio osoan ere ezaguna da, eta penintsulako ipar aldera ere zabaltzen da bere sona.

Aideko airea esan nahi du. Jeinu honek giza jarduerak oztopatu egiten ditu gehienetan, baina zenbaitetan lagundu ere egiten du. Arrazoi naturalak ezagutzen ez dituen gaixotasunen eragile ere izaten da bera. Ez badakizu zer den eragin zaizun gaixotasuna, Aidekori botatzen zaio errua.

Aidegaxto Aideko gaiztoa da, izenak dion bezala. Beronek ekaitzak eta trumoiak agintzen ditu.

Zerainen eta Zegaman kontatzen dutenez, XX. mendearen erdi aldera egon zen kolera-izurritea Aidekok ekarria omen zen. Jeinua behe-laino itxuran etorri omen zen gaixotasuna ekartzera.

## ETSAI



Euskal mitologia

Izen askorekin Euskal herri osoan ezaguna den jeinua da etsai. Infernuko etsaia dugu Etsai, jeinu gaiztoa eta erlijioaren arerio.

Zenbait kontakizunetan ematen zaigun irudia nahiko irrigarria edo burlazkoa da. Itxura ugaritan agertzen zaigu: askotan dragoi baten antza du, baita gizaki itxura ere, eta zenbait animaliarena ere hartzen du.

## EATE

Ekaitzaren, suaren, uholdeen eta haizeteen jeinu bezala agertzen da. Ekaitza, sutea eta bestelako fenomeno naturalak datorrenean, bere deiadarra entzuten omen da, gizakiei hondamendiaz abisatu nahian.

Eate, berez, 'errete'tik datorrela dirudi. Hasiera batean, Eate suaren jeinua izan zitekeen, beraz. Elezaharretan kontatzen denez, basoa edo baserri bat erretzen ari denean, gorantz doazenugar biribilduak jeinuaren bizar luzeak omen dira.

## ODEI

Odei izena lainoari ematen diogu, baina garai batean trumoiak, tximistak eta ekaitzak ekartzen dituen jeinuari ere honela deitzen zitzaion. Trumoiak eta tximistak botatzen zituen jeinuari.

Nekazarien sinesmenek diotenez, Odei laino ilun eta ekaitzu baten itxuran agertzen da. Antzinako Ortz edo Urtz jainko zerutiarra berak ordezkatu zuen; haiek baino berriagoa da, beraz. Mariren, Euskal pertsonaia mitologiko guztien nagusi den Mariren, seme gaizto bezala ere agertu izan da kontakizunetan. Odeiren eraginetik babesteko, erremedio magikoak erabili ohi dira.

## GAUEKO

Gaueko jeinua da Gaueko. Sinesmen zaharrek diotenez 'eguna egunekoentzat, gaua gauekoentzat' da.

Pertsonak, gauez, etxean egon behar dute, hura da pertsonen gotorlekua, eta gauez etxetik kanpo zenbait lan egiten ausartzen diren pertsonak Gauekoren hatzaparretan harrapatuta geldituko dira. Haize bolada baten bidez abisatzen du Gauekok gertu dabilela

## ERROLAN

Pertsonaia mitologiko hau Karlomagnoaren Roldan ilobaren mitotik sortua da. Karlomagnoaren tropek Iruña erre zuten Frantziarako bidean, Zaragozan mairuen aurka gailenduak izan ondoren, eta borrokalari euskaldunek, mendekua hartu zutela, Karlomagnoaren armada suntsituz, Orreagatik igarotzean. Roldan hil zuten, Karlomagnoaren gudalozteen komandante eta iloba, eta geroztik hainbat sinesmen eta mito sortu dira.

Errolan erraldoia mendi batetik bestera edo aran batetik bestera harrizarrak botatzen ageri zaigu elezaharretan. Pertsonai kaltegarri baten moduan agertzen zaigu errolan askotan baselizak, elizak edo herriak suntsitu nahian ibiltzen zelako.

## MAIDE

Antzinako gizon fedegabeak bezala ageri dira, antzinako euskaldunak bezala. Pertsona fedegabeei edo bataiatu gabeko umei eta jatorri arabiarra dutenei maide deitzen zaie, gaur egun ere.

Jeinu gautarra da Maide. Gauetan, tximiniatik behera sartzen da etxeetan, bertako pertsonak utzi dizkioten eskaintzak jasotzera.

Maide Lamien lagun da. Maideren beso lehorrak edo besoko hezur batek dohain misterioitsuak omen ditu. Garaziko kontakizun batean, bataiatu gabeko haurraren beso lehorrari 'mairu-beso' deitzen zaio; eta gauean suziri modura erabiliz, etxeko bizilagunak loak hartzen omen ditu.

## BASAJAUN

## Euskal mitologia

Bere izenak dioen bezala, 'basoko jauna, jaun basatia' dugu jeinu ezagun hau eta basoaren zaindaria da. Basajaunek gizon handi eta izugarri baten itxura du. Gorputza ilez estalia du, adatsa belaunetaraino iristen zaio, eta aurpegia, bularrak eta sabela ia guztiz estaltzen dizkio. Oinetako bat gizakienaren modukoa da, eta bestea oinatz borobil batez osatua dago.

Artaldean babeslea da, bereziki ekaitza datorrenean, Basajaunak orroa botatzen du artzainak ohartarazteko. Orroari esker, artzainak konturatzen dira eta artaldeak babesan ipintzen dute. Otsoengandik ere babesten du artaldea. Ardiek, Basajauna hurbil dagoela sentitzen dutenean, bat-batean, zintzarrien astindu bat egiten dute, eta, hala, artzaina lasai egoteko moduan dago, otsoak ez baitira gerturatuko.

Batzuetan jeinu gaizto bezala agertzen da; beste batzuetan nekazari gisa azaltzen da, eta, lehen errementari edo lehen errotari gisa. Lanbide guzti horien maisu da, eta gizakiak basoko jaun honi ostu dizkio zerra eta errotaren ardatza egiteko sekretua, bai metalak soldatzeko sekretua ere.

## JENTILAK

Euskal Herri osoan entzuna da jeinu hau. Jentilak kristautasunaren aurretik bizi ziren pertsona fedegabeak ziren. Kristautasuna etorri zenean jentilak mendira bizitzera joan ziren beraiek bakarrik. Kristaueatik aldenduta bizi baziren ere, beraiekin bakean zeuden.

Kristauek jentilak deitzen zieten pertsona fedegabeei. Jentilak erraldoiak eta indartsuak ziren. Arkaitzak botatzen zituzten oso urrutira.

Monumentu megalitikoaren sortzaile bezala agertzen zaizkigu Jentilak.

## HARRIAK

Nafarroako haran batean harri bat dago Arrikulunka izeneko, eta bere izena adierazten duenez kulunka egiten mugitzen da. Kontatzen da beste harri batzuk,

orokorrean handiak , idazkerak zeuzkatela; Zegaman (Gipuzkoa), Berangan (Gipuzkoa), Kortezubin (Bizkaia), Aranon (Nafarroa), Saran (Lapurdi)... Hau da kontatzen zutena azken herri honetan:

“Larraunen tontorrean harri bat zegoen hilobi bezala. Kaperako hormaren hurbil zegoen. Gainean idatzita zeukan “ itzulera ematen didanak ez da damatuko” Pentecoteseko hurrengo egunean gazteak joan ziren, itzulera eman zioten, eta behean ipintzen zuen: “Lehen ondo zegoen eta orain obeto”.Berangakoan ipintzen zuan “ Itzulera eman”eta itzulera eman eta gero hau ipintzen zuen “Orain ondo nago”. Zegamakoan esaten zuen “Itzulera eman”eta “ondo nago”.

## URTZI

Zerua eta jainkoak gauza berbera ziren. Urtzi jainko gorena zen. Urtzi eta beste jainkoak gizaki bezala aurkezten dira, naturako agerraldiak izan ere.

## ORTZI

Trumoiak eta ekaitzen jainkoak ziren. Urtzi Ortzi bilakatzen zen haserretzen zenean eta horregaitik ekaitzak sortzen ziren. Jendea Jainkoaren beldur zen eta bere araoak uxatzeko metodo desberdinak erabiltzen zituzten.

Euskal mitologia